

GOIERRITARRA

Ale berezia 2.500ko tirada

124 p.k. Ordizia --Goierriko euskaldunon aldizkaria-- debaldeko aldizkaria

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

19. zenbakia.

91ko Abendua

L
A
N



M
U
N
D
U
A

- ❖ “GOIERRI” LANBIDE EŞKOLA, “GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA” ETA “GOIERRI 2.000” PLAN ESTRATEGIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA, JOAN MANUENL BARANDIARANekin.
 - ❖ INDUSTRIA KRISIARI BURUZKO INKESTA.
 - ❖ NIKOLAS LEKUONA, ARTISTA ABANGOARDISTA ORDIZIARRA GOGOAN.
 - ❖ BERRIAK LABUR, GOIERRIAR LIBURU ETA ALDIZKARIAK, HAMAIKA BERTSO, HIRU DISKA URTEBETERAKO, KARTAK ETA KOLABORAZIOAK, TREN ORDUTEGIAK AGENDAN ETA ABAR.
- URTEBERRIAK ARTE, GABON ONAK PASA!

PERIODIKUAK

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteak - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak


gaur express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GOIERRITARRA HILABETEKARIA*Bertako txalaparta eta albistaria**Isiltzen ez den zintzarria***19. zenbakia. 91.ko Azaroa-Abendua****Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale. 1.700 harpidedun.****Argitaratzailea:** "Goierritarak"Kultur Elkartea. Dorre- etxea,
behea (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia.

Izen emango dizu GOIERRITA-
RRAn iragartzeak, aldizkari bat bai-
no gehiago baita honakoa.

Dei 88 96 12 telefonora

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso
du. Goierriko Udal askoren dirula-
guntza jaso izan du azken bi kur-
tsoetan era berean eta datorren kur-
tsorako laguntzen zain gaude. Ez da
inolako hitzarmenik oraindik, ta-
malez. Dirulaguntzak eman edota
agindu dizkigute: Itsasondo, Idiazab-
al, Zerain, Arama eta Alzagak.**Erredakzioa Koordinatzailea:** Jon
Mikel Arano.**Publizitate arduraduna eta la-
guntzailea:** Mikel Albisu.**Aholkulariak:** Tere Irastortza, eta
Andoni Sarriegi.**Ale honetan kolaboratu dute:** An-
doni Sarriegi, Maite Erauskin, Ra-
mon Ugalde, Mikel Leunda, Mikel
Aramendi, Rufino Iraola, J.I. Itu-
rrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zu-
bizarreta, Jexux Lete, «Ibai-Ertz»,
Tomas Agirre, Ane Martin, J. Aran-
dia.**Gure eskerrik beroenak:** Goierr-
ko Udal laguntzaileei. "Zure Argaz-
ki" foto-etxeari, "Argia", Goimen,
"Egunkaria", Eroski eta Lankide
Aurrezkiari. Era batera edo besteralagundu nahi liguketenei gauzak
errazten dizkiguzuenoi eta nola edo
hala parte hartzeko irrikitan zaude-
tenoi.**Fotokonposizioa, maketazioa
eta inprimaketa:** ANTZA.**Lege Gordailua:** SS 926/89**GOIERRITARRA aldizkaria**
*ez du bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik*«Goierritarak»
Kultur Elkartea**Irakurleari:**GOIERRITARRAren 19. zenbaki hau
ez da, inolaz ere, zerorri eskaini nahi ge-
nizukeena. Ez genuke negarrez hasi nahi
berriro, baina gauzak diren bezala: go-
raxeago irakurri dezakezu, bertako Udal
gutxi batzuen dirulaguntzak ditugu lotuta
eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzatxo bat.
Foru Diputaziotik zerbait lortuko omen
da, baina Ordizia eta Beasaingo Udalen
dirulaguntzak ez daude ziurtaturik orain-
dik. Lazkaoko Udalak berriro uko. Zer
dela eta?Ea zer gertatzen den Aldizkari hone-
kin, esaterako. Momentuz, Goierriko He-
rrien Ekintza Fundazioak (ikus elkarriz-
keta zentrala), holakoetarako badago ere,
ez du bere gain hartu gure eskakizunik.
Borondaterik ba omen dute, baina au-
reagoko lanak izango dituzte.20. alearen bila goaz dagoeneko eta
herri-prentsaz kongresuak eta guzti egi-
ten direnean, "inpas" fortzatu batetan
gauzkate. Ez da materialik ez dugulako,ez kuantu! Ez eta talderik ez dagoelako
atzetik horratio! "Zulo" handiago batean
sartzeko arrisku-bizian ez genuke geratu
nahi.Goierriar irakurlearen zerbitzurako
jaio ginen eta horretan jarraitzeko gogoa
baino ez dugu. Orri gutxiago aurkituko
dituzu oraingoan, baina irakurle gehia-
gok aurkituko dute GOIERRITARRA.Hurrengoan gauza hobeagorik eskai-
niko al dizuegu!**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA.....TLF

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI-ESKER

Tren ordutegiak

Irún → Brinkola

	Irún	Ventas	Lazkao	Pasaia	Herrera	Alegoria	Gros	Donostia	Loiola	Marulena	Herran	Herran Apto	Urrutia	Ardoan	Ardoan Apto	Vitoria Zuzen	Artea	Tolosa Apto	Tolosa	Alegia	Isaberrua	Legorreta	Isaberrua	Orioa	Bassano	Bassano Apto	Ormaiztegui	Gabarra	Zumaia	Legorreta	Brinkola				
a.	5.15		5.24	5.27	5.30	5.33	5.36	5.41		5.45	5.49	5.51	5.54	5.56	6.00	6.04		6.10	6.13					6.20	6.23	6.26	6.29		6.36		6.45	6.50	→ VA		
d.	6.15	6.18	6.25	6.28	6.31	6.34	6.37	6.41	6.44	6.46	6.49	6.51	6.54	6.56	7.00	7.04	7.08	7.11	7.14	7.18									7.32		7.50	7.55	→ VI		
a.	6.35		6.43	6.46				6.55																					8.04		8.26				
d.	6.45	6.48	6.55	6.58	7.01	7.04	7.07	7.11	7.14	7.16	7.19	7.21	7.24	7.26	7.30	7.34	7.38	7.41	7.44	7.48	7.51	7.54	7.57	8.00				8.04		8.26					
a.	7.15	7.18	7.26	7.29	7.32	7.35	7.37	7.41	7.44	7.46	7.49	7.51	7.54	7.56	8.00	8.04	8.08	8.11	8.14	8.18	8.21	8.24	8.27	8.30				8.35		8.59	9.05	9.34			
d.	7.35	7.38	7.45	7.48	7.51	7.54	7.57	8.01	8.04	8.06	8.09	8.11	8.14	8.16	8.20	8.24	8.28	8.31	8.34	8.38	8.41	8.44	8.47	8.50				9.02		9.23	9.28	9.34			
a.	8.15	8.18	8.25	8.28	8.31	8.34	8.37	8.41	8.44	8.46	8.49	8.51	8.54	8.56	9.00	9.04	9.08	9.11	9.14	9.18	9.21	9.24	9.27	9.30				9.35		9.59	10.05	10.12			
d.	8.50	8.53	9.00	9.03	9.06	9.09	9.11	9.14	9.17	9.19	9.22	9.24	9.27	9.31	9.33	9.37	9.41	9.44	9.48	9.50	9.53	9.56	9.59	10.02	10.05	10.10	10.13		10.26						
a.	9.45	9.48	9.55	9.58	10.01	10.04	10.07	10.11	10.14	10.16	10.19	10.21	10.24	10.28	10.30	10.34	10.38	10.41	10.44	10.48	10.51	10.54	10.57	11.00				11.01		11.24					
d.	10.15	10.18	10.25	10.28	10.31	10.34	10.37	10.41	10.44	10.46	10.49	10.51	10.54	10.58	11.00	11.04	11.08	11.11	11.14	11.18	11.21	11.24	11.27	11.30				11.34		11.54					
a.	10.45	10.48	10.55	11.01	11.04	11.07	11.10	11.17	11.20	11.22	11.27	11.29	11.32	11.37	11.39	11.43	11.47	11.50	11.55	11.59	12.02	12.05	12.08	12.11	12.16			12.23		12.34	12.39	12.45	→ VI		
d.	11.45	11.48	11.55	12.01	12.04	12.07	12.11	12.14	12.16	12.19	12.21	12.24	12.28	12.30	12.34	12.38	12.41	12.44	12.48	12.51	12.54	12.57	13.00				13.04		13.12		13.25				
a.	12.15	12.18	12.25	12.28	12.31	12.34	12.37	12.41	12.44	12.46	12.49	12.51	12.54	12.58	13.00	13.04	13.08	13.11	13.14	13.18	13.21	13.24	13.27	13.30				13.35		13.40		13.59	14.04	→ VI	
d.	12.40						12.59																					14.09		14.17	14.22	14.31	14.36	14.42	
a.	12.50	12.53	13.00	13.03	13.06	13.09	13.12	13.16	13.19	13.21	13.24	13.26	13.29	13.33	13.36	13.39	13.43	13.46	13.49	13.53	13.56	13.59	14.02	14.05				14.10		14.25		14.35			
d.	13.15	13.18	13.25	13.28	13.31	13.34	13.37	13.41	13.44	13.46	13.49	13.51	13.54	13.58	14.00	14.04	14.08	14.11	14.14	14.18	14.21	14.24	14.27	14.30				14.35		14.40		14.55			
a.	13.45	13.48	13.55	13.58	14.01	14.04	14.07	14.11	14.14	14.16	14.19	14.21	14.24	14.28	14.30	14.34	14.38	14.41	14.44	14.48	14.51	14.54	14.57	15.00				15.05		15.12		15.25	15.30	15.36	
d.	14.15	14.18	14.25	14.28	14.31	14.34	14.37	14.41	14.44	14.46	14.49	14.51	14.54	14.58	15.00	15.04	15.08	15.11	15.14	15.18	15.21	15.24	15.27	15.30				15.35		15.48		15.57			
a.	14.40		14.50	14.53	14.56	14.59	15.02	15.06	15.09	15.11	15.15	15.17	15.20	15.24	15.26	15.30	15.33	15.37	15.41	15.45	15.48	15.51	15.54	15.57				16.00		16.08		16.28	16.33	16.39	→ VA
d.	15.10	15.13	15.20	15.23	15.26	15.29	15.32	15.36	15.39	15.41	15.45	15.47	15.50	15.54	15.56	16.00	16.03	16.07	16.11	16.15	16.18	16.21	16.24	16.27	16.30			16.35		16.48	16.53	17.01	17.07	17.15	
a.	15.35	15.38	15.45	15.48	15.51	15.54	15.57	16.01	16.04	16.06	16.10	16.12	16.15	16.19	16.21	16.25	16.28	16.32	16.36	16.40	16.43	16.46	16.49	16.52				16.57		17.04		17.17			
d.	15.55	15.58	16.06	16.09	16.12	16.15	16.18	16.22	16.25	16.27	16.31	16.33	16.36	16.40	16.42	16.46	16.50	16.53	16.56	17.00	17.03	17.06	17.09	17.12				17.15		17.21	17.37	17.43	→ MI		
a.	16.15	16.18	16.25	16.28	16.31	16.34	16.37	16.41	16.44	16.46	16.49	16.51	16.54	16.58	17.00	17.04	17.08	17.11	17.14	17.18	17.21	17.24	17.27	17.30				17.34		17.42		17.55			
d.	16.45	16.48	16.55	16.58	17.01	17.04	17.07	17.11	17.14	17.16	17.19	17.21	17.24	17.28	17.30	17.34	17.38	17.41	17.44	17.48	17.51	17.54	17.57	18.00				18.04		18.12		18.25			
a.	17.15	17.18	17.26	17.29	17.32	17.35	17.37	17.41	17.44	17.46	17.49	17.51	17.54	17.58	18.00	18.04	18.08	18.11	18.14	18.18	18.21	18.24	18.27	18.30				18.34		18.42		18.51			
d.	17.45	17.48	17.55	17.58	18.01	18.04	18.07	18.11	18.14	18.16	18.19	18.21	18.24	18.28	18.30	18.34	18.38	18.41	18.44	18.48	18.51	18.54	18.57	19.00				19.04		19.12		19.26	19.31	19.37	
a.	18.15		18.23	18.26				18.32	18.36																				19.09						
d.	18.45	18.48	18.55	18.58	19.01	19.04	19.06	19.10	19.13	19.15	19.18	19.20	19.23	19.27	19.29	19.33	19.37	19.40	19.43	19.46								19.58	20.01		20.19				
a.	19.00		19.08	19.11				19.21																					20.01		20.12		20.25		
d.	19.20	19.23	19.30	19.33	19.36	19.39	19.42	19.46	19.49	19.51	19.54	19.56	19.59	20.03	20.05	20.09	20.13	20.16	20.19	20.23	20.26	20.29	20.32	20.35	20.39			20.47		21.04	21.09	21.15	→ AL		
a.	19.35	19.38	19.45	19.48	19.51	19.54	19.57	20.01	20.04	20.06	20.09	20.11	20.14	20.18	20.20	20.24	20.28	20.31	20.34	20.38	20.41	20.44	20.48	20.51	20.54	20.57	21.01	21.04		21.12		21.25			
d.	19.45	19.48	19.55	19.58	20.01	20.04	20.07	20.11	20.14	20.16	20.19	20.21	20.24	20.28	20.30	20.34	20.38	20.41	20.44	20.48	20.51	20.54	20.57	21.01	21.05	21.09	21.13	21.16	21.20		21.28		21.48		
a.	20.15	20.18	20.25	20.28	20.31	20.34	20.37	20.41	20.44	20.46	20.49	20.51	20.54	20.58	21.00	21.04	21.08	21.11	21.14	21.18	21.21	21.24	21.27	21.30				21.34		21.42		21.55			
d.	20.45	20.48	20.55	20.58	21.01	21.04	21.07	21.11	21.14	21.16	21.19	21.21	21.24	21.28	21.30	21.34	21.38	21.41	21.44	21.48	21.51	21.54	21.57	22.00	22.04			22.12		22.25	22.30	22.36			
a.	21.15	21.18	21.25	21.28	21.31	21.34	21.37	21.41	21.44	21.46	21.49	21.51	21.54	21.58	22.00	22.04	22.08	22.11	22.14	22.18	22.21	22.24	22.27	22.30				22.34		22.42		22.55			
d.	21.45	21.48	21.55	21.58	22.01	22.04	22.07	22.11	22.14	22.16	22.19	22.21	22.24	22.28	22.30	22.34	22.38	22.41	22.44	22.48	22.51	22.54	22.57	23.00	23.04			23.12		23.18		23.25			
a.	22.15	22.18	22.25	22.28	22.31	22.34	22.37	22.41	22.44	22.46	22.49	22.51	22.54	22.58	23.00	23.04	23.08	23.11	23.14	23.18	23.21	23.24	23.27	23.30				23.34		23.42		23.55			
d.	22.45	22.48	22.55	22.58	23.01	23.04	23.07	23.11	23.14	23.16	23.19	23.21	23.24	23.28	23.30	23.34	23.38	23.41	23.44	23.48	23.51	23.54	23.57	24.00	24.04			24.12		24.18		24.25			
f.	23.45	23.48	23.55	23.58	00.01	00.04	00.07	00.11	00.14	00.16	00.19	00.21	00.24	00.28	00.30	00.34	00.38	00.41	00.44																

a. Lanegunetan, larunbatetan ezik
d. Lanegunetan.
f. Lanunbatetan bakarrik.

Segitzen: AL - Alasua.
MI - Miranda.
VA - Valladolid.
VI - Vitoria.

Brinkola → Irún

	Brinkola	Legorreta	Zumaia	Gabarra	Ormaiztegui	Bassano Apto	Bassano	Orioa	Isaberrua	Legorreta	Isaberrua	Alegia	Tolosa	Tolosa Apto	Artea	Vitoria Zuzen	Ardoan Apto	Ardoan	Urrutia	Herran Apto	Herran	Marulena	Loiola	Donostia	Gros	Alegoria	Herrera	Pasaia	Lazkao	Ventas	Irún
c.													5.00	5.02	5.05	5.09	5.13	5.15	5.19	5.22	5.24	5.26	5.30	5.35	5.37	5.39	5.42				

Herrietatik Goierri. Non zer berri

BEASAIN

Harremanak Euskaraz Udalarekin

1.991-ko Errolda eta Zentsua berritzean, Beasaingo Udalarekin harremanak Euskaraz bakarrik izan nahi zituzten beasaindarren izenak biltzeko ahalegina egin zen. Herritar askok eman zuen orduan bere izena, baina gauzak behar bezala ez ziren egin ahal izan eta beste askok ez zuten erabakitze aukera hori izan.

Orain, udazkenean zehar, oraindik Udalarik euskarazko harremanak eskatu ez diozuen guztioi, eskutiz bat iritsiko zaizue Alkate J.-ak eta Euskara-Batzordeak sinatuta eta bertan adieraziko zaizuen bezala, Udalarekiko harremanak Euskara hutsean nahi dituzuenok, bete ezazue eskutitzarekin batera joango zaizuen datu-orria eta bidali Udaletxeko Euskara-Zerbitzura edota entregatu bertan.

Eskutitz hori iristen ez bazaizu eta harremanak Euskaraz bakarrik nahi badituzu berri, joan zaitez Udaletxeko Euskara-Zerbitzura eta bertan adierazi zure nahia.

Oso garrantzitsua da Udaleko Zerbitzuen hizkuntz planifikaziorako euskaldunok euskaraz hutsezko harremanak lehenbailehen eskatzea.

Udaleko Euskara Zerbitzua.

KIROLA ZURE ESKU ANTZIZARREN

Kirolaren lagun zareten guztioi:

Atsegin osoz aurkeztzen dizuegu orritxo honen bidez gure POLIKIROLDEGIKO 91/92-ko KIROL-EKINTZA FESIKOKO kanpainia.

Kirol zerbitzu desberdinak geratzen saiatu gara ANTZIZAR POLIKIROLDEGITIK, beasaindar guztion kirol eta ekintza dibertigarriak parte-hartze eta interesa handitzeko helburuarekin, HEZKUNTZA FISIKOA eta KIROLA ez izateko murriztuak, guztion osaketarako baizik, HEZKUNTZA eta KULTURAN barneratzen direlarik.

"Guztion eta guztiontzako" entitate bat gara, seguru aski jakingo duzu, eta haur, gazte, heldu, andre, eta 3. adineko guztiek kirol praktika edo ekintza baten gozamina izan dezatela atzetik gabilzala ere.

Kanpainia honen garapena bultzatu nahian, kirolarekiko kontzientziapen eta estimaren adierazgarri izango den zure parte-hartzea eskatzen dizugu. Oraindik egiteko asko dagoela badakigunez eskatzen dugu laguntza hau.

✓ Ongi-etorri ANTZIZAR POLIKIROL-DEGIRA, non, beasaindar guztion atal honekiko behar guztiak bete ahal izateko, talde lana hain beharrean duen kirol baten alde. Gure indarrak elkartuko ditugu, eta hau izan dadila, kirolan parte hartzearen bultzatzaile eta ekintza berrien eratzaile izango den EGITURA EZBERDIN baten hasiera.

✓ Muskulazio gela. Gimnasi Gelak. Sauna. Igerilekua. Ping-Pong. Tatami Gimnasi Gela. Frontoia. Pabiloia. Masaia. Frontoia. Pabiloia. Masaia. Kalitatezko Zerbitzu berriak. Iharduerak: Guztion osaketarako. Kirol Eskolak: 18 Kirol desberdinetan. Instalazio berriak: Errokodromoa. Tennis Pistak.

ABONATU ZAITEZ ZURE POLIKIROL-DEGIRA. 887900 tfnoa.

BEASAIN IDAZLAN-SARIKETA

Beasaingo Udaleko Euskara-Batzordeak, Gipuzkoa/Donostia Kutzak lagunduta, ikasleen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko. "II BEASAIN idazlan-Sariketa" sortu du Beasainen erroldatuta dauden edota Beasaingo O.H.O.ko ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleentzat eta Irakaskuntz Ertainenat Goierriko (Beasain, Ordizia edo Lazkaoko) ikastetxeetan dabilzanentzat.

OINARRIAK

✓ Lehiaketan, Beasainen erroldatuta dauden edo ta Beasaingo Ikastetxeetan ikasten dabilzan O.H.O.ko ikasleek (1.978-01-01etik 1.983-12-31ra jaioek) eta Goierriko Irakaskuntz Ertainenatko Ikastetxeetan (Beasainen, Ordizian edo Lazkaon) ikasten dabilzan ikasleek (1.974-01-01etik 1.977-12-31ra jaioek) edo Beasainen erroldatuek eskuhar dezakete.

✓ Lehiaketa, hiru mailatan banatuta dago: A maila 1.974, 1.975, 1.976 eta 1.977 urteetan jaioentzat. B maila 1.978, 1.979 eta 1.980 urteetan jaioentzat. D maila 1.981, 1982 eta 1.983 urteetan jaioentzat.

✓ Gaia librea izango da baina hitz-lauz edo prosaz eta euskaraz idatzia izan behar du. Prosaren barruan edozein jenerotakoa izan daiteke. Jatorrizkoa edo originala eta argitaragabea izan behar du. Itzulpenak ez du balio izango.

✓ O.H.O. mailan Beasaingo Ikastetxeetakoek eta Ertainen mailan aipatutako Goierriko Ikastetxeetakoek, Ikastetxeko Euskara-Mintegi edo Departamentuaren bidez aurkeztu behar dituzte beren lanak. Ikastetxe bakoitzari, aurkez ditzakeen maila bakoitzeko idazlan-kopuru maximoa izendatuko zaio.

✓ Beasainen erroldatuta egon arren, adierazitako Ikastetxeetan ez dabilzan ikasleek, zuzenean entregatu beharko dituzte Udaletxeko Euskara-Zerbitzuan.

✓ Idazlanak, 1.991ko abenduaren 10era bitartean aurkeztu beharko dira Udaletxeko Euskara-Zerbitzuan, aurreko puntuan adierazitako moduen arabera.

✓ Idazlanak sinatu gabeak izango dira eta izenburua eta gaitzizena izango dituzte. Aparteko kartazal itxi baten barruan entrega-

tuko dira egilearen benetako datuak eta kartazalean izenburua eta gaitzizena jarriko dira. ✓ Epaimahaia, honako beasaindar hauek osatuko dute: Xabier Mendigurenek, Mikel Sarriegik eta Xabier Gartziak. Horietako norbaitek huts egingo balu, Beasaingo Udaleko Euskara-Batzordeak izendatuko du bere ordezkia. Epaimahaiaren erabakia atzera botatzina izango da.

✓ Beasaingo Udaleko Euskara-Batzordeak, saritutako idazlanetatik Epaimahaiak hautatzen dituenak argitaratzeko eskubidea izango du (beste ordainketarik gabe) epaia eman ondorengo 2 urteren buruan. Saritu gabeko lanak, egileei itzuliko zaizkie. 2 urteren buruan lan sarituak argitaratuko ez balira, egileek jaso ditzakete, beraiei egokien deritzena egiteko.

OROKORRAK

✓ Udal Administrazio, Elkartek eta ekintza antolatzaileei: Honen bidez, zera eskatzen dizuegu: Udaletxe eta Ekarte horietatik atera behar duten edonolako ohar guztiak, jendeen jakinean jartzea komeni diren guztiak (ez kulturari dagozkionak bakarrik) bidali diezazkiguzuela GOIERRITARRAREN "Agenda", "Herrietatik Goierri" eta beste sailatarako.

Ohar horiei gustora egingo genieke leku aldizkari honetan (hilabetekaria da oraindik), ahalik eta azkarren bidaliko bazenizkiguzue. Hau da, gure aldizkaria hilabete bakoitzaren lehen egunetan ateratzeko asmoa dugunez, hilabete horretan ihardunean egongo diren ekintza eta abarren berri behar dugu. Hamar eguneko antelazioarekin jaso beharko genituzke.

GOIERRITARRA, 889612, 124 p.k. Ordizia.

ESTUALDIRAKO TELEFONOAK

S.O.S. Deiak.....	088
DYA.....	464622-466868
Anbulantziak: Gurutze Gorria.....	276811
Ertzaintza.....	554962
Udalzaingoa.....	288888
Polizia Nazionalea.....	092-464020
Guardia Zibila.....	091-454800
Eritetxea / Osasun Errezidentzia.....	276611
Gurutze Gorria: Larrialdiak.....	453800
Gurutze Gorria: Hospitala.....	272222
Estualdiko Sendaetxea.....	214600
Suhiltzaileak.....	464120
Itxaropen Deiak.....	080
Alkoholiko Anonimoak.....	458005
Gizakia Helburu (Toxikomanoak).....	276618
SIDAri buruzko berri ematea.....	273900
Toxiko-eraginari buruzko berri ematea.....	282666
Taxi-Irratia.....	91-2620420
Renfe.....	467666-466455
Errepide-laguntza.....	283599
	91-7421213

Kaixo Goierritarra

Ikasketak direla eta Italiako Florentzia hirian galduta dabilen goierritar bat naiz. Denbora luzetan spaghettiak jateaz nazkatzearaz aparte, euskeraz hitzegin eta irakurri gabe egon behar izaten det.

Ilusio galanta egingo lidake aldizkaria jasotzeak. Horrela inguru hoietako gauza txikien berri izango nuke. GOIERRI-TARRA atzerrira bidaltzea posible bada, hemen duzue nere zuzenbidea.

Aurretik esker onak emanez agurtzen naiz eta txoko hontatik pasatzeko asmoa baduzue kasu egin. Hurrenarte.

Iñaki Sarriegi. Via Giovanni Lanza, 59-3. 50136 Firenze.



Bakoitzari berea

Aldizkariaren 12. zenbakian, Jesus Larrañaga, "Goierri"ren bizitza erreparatu zenuten. Politikari gorriaren kontu gehienak jarri zenituzten, baina inportanteenetariko bat ahaztu egin zitzaion "Kexexo"ri: Calvo Sotelo esan zuenean "Antes una España roja que rota" (esaldi hain famatua eta gaurkotasunik galdu ez duena zenbaitzuentzat), "Pues la tendreis roja y rota" egin zion kontesta "Goierri"ri.

Bestalde, Itsasondoko sarasolatarrak aipatu nahi nituzke, Andoni, Kelmén eta Jokín, jende formatua delako-edo, tinta isurtzen dute han-hemenka, aporteratzen dute periodiku eta egunkarietan. Azkenean batean (hainbeste idatzi da autodeterminazio eta independentziari buruz) Andonik "El Mundo"n zioena: duela 60 urte (31-IV-18) Itsasondoko Udalak autodeterminazio erreklamazioarekin bat Euskal Errepublikaren proklamazioa eskatu zuen eta gobernadoreari eta Gobernu Probisionalari bidali akordio honen berri. Firmatzaileak, Jose Manuel Sarasola alkatea, lau zinegotzi abertzale, indepen-

diente-katoliko bat, karlista bat eta UGT-sozialista bat. Gutxi ajola horrek ekarri liezazkieken kalteak. Herri horrek hartu zien aurre gainontzeko guziei. Zale ziren garai bateko abertzaleak: hitz gutxitan, ekintzetan anitz, gaurregun ez bezala.

Ijitoitxo

"Pesa"ri

Ohizkoa bihurtzen ari ote Beasaindik Bilbora "Pesa"ko busetan zutik joatea?

Bilbon ikasten dugun Goierriko bi ikasle gara. Hau dela eta astelehenero Bilborako autobusa hartu beharrean aurkitzen gara. Bi ordu t'erdiko bidaia erosoagoa gerta dakigun, "Pesa"k zuzeneko autobus bat jartzen du astelehen goizero Beasaindik. Duela bi aste hiru pertsonak egin zuten bidaia hori zutik. Joan den astean berriz, hogeit hamar pertsona izan dira hori sufritu dutenak. Datorren astean zenbat izango ote dira?

Idatzi honen bidez, gogorki salatu nahi dugu "Pesa"ren jokaera, bidaia 600 pzt. ordaindu ondoren eserleku baten eskubiderik ez izatea, "Pesa" hori irtenbide bat ez ematea!

Uste dugu hainbeste pertsona 100 bat km.tan zutik eramateko eskubiderik ez dagoela. Non daude ertzainak? Horrelako kasuetan, istripuren bat gertatuz gero, zer? Nor da horren erantzule?

Baina, hau ez da bakarrik Beasaindik Bilborako bidaian gertatzen, antzeko zerbait edo okerragoa gertatzen da ostirala ailegatu eta Bilbotik etxeratze orduan: askotan ordubete lehenago joan behar izaten dugu "Pesa"ko bus-geltokira autobusean sartu nahi badugu, bestela kale gorrian geratzen bait gara.

Beraz, guzti honen aurrean "Pesa"ri esijitzen dioguna da, pertsona bakoitzak eserleku bana izatearen eskubidea bete dezala eta kasuan kasuko egoerari aurre egitea pertsonak autobusak beraien esku-ira izan ditzaten.

Bi ikasle goierritar

Aralarko Ordenakuntza

Jakingo duzutenez, Aranzadi Zientzi Elkarteak burututako ikerketa eta horren ondorioz eginiko "Aralarko Antolakun-

tza Plana" aurrera doa, Enerio Aralarko Mankomunitateak bultzaturik.

Antolakuntza hori gauzatzen hasi bezain laster, arazoak, eztabaidak, etabar, inguraturik izan da.

Bere garaian hainbat iskanbila sortu zuen "aerodromoaren" eraikuntzak berriro sortu du zeresana. Horren helburua Aralar mendiarri dagozkion aktibitateak burutzea bazen (fosfatazioa), orain badi-rudi Gipuzkoa herrialderako zabaltzen direla bertako betebeharrak. Aurtengo uda honetan Foru Aldundiak zuzendurik, herrialde osorako erabili dute Aralarko "aerodromo", prozesionaria delako pinu gaitz hori gainditzeko, horretarako hegazkin ugari erabiliz. Horiek botatzen zuten produktua "dimilin" delakoa zen gasoilarekin nahasturik. Abioiaren depositok motobonbaren bidez betetzen zituzten, izugarritzko bidoi ugaritan zeuzkatelarik, betealdi bakoitzeko, motobonbak bere lana burutzeko lurrera botatzen zuten likido mordo bat, gero abioiaren tankea betetzeko. Horrenbeste milaka litro erabili dituzte leku batean, zenbat isuri ote zaie lurpera? Horrelako ingurune natural batean nola egin litezke lan horiek? Neurtu ahal dituzte sortutako galerak?, uraren kutsadura, zarata, zikin-keriak, eta abar... Herrialdeko arazoak Aralartik konpondu behar al dira? Ez dago beste lekurik?

Beste arazo bat areagotu da aurren, autoen erasoak, batipat, Enerio, Igaratza, Lareo, aldean.

Artzxi txabolak konpontze lanerako aitzakitzat hartuta, irekitzen ari dira pista berriak mendi barruraino, lehergailuak eta guzti erabiliz.

Aralarko Antolakuntza Plan hori burutzeko, ezin daiteke horrelako egoera desordenatuan egin, errekuera ezinezko egoerak sortuz.

Aralar Izadi Taldeko partaide bat

**ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN**



Hireganatu eza-k/n Gaztetxea

Berriro ere, oporrak pasa direla eta, Gaztetxea martxan dago bere ekintze-kin atzera eta aurrera. "Kurtso" hone-tako egoera berezi xamarra dugu, lo-kala erre eta berritu ondoren. Gazte-txearen funtzionamenduari buruzko debatea, oso interesgarria izan daite-keena, irekita dugu: nola hobetu, gaz-teengana nola iritsi, azken finean loka-laren mantenimendu eta gestio lanetan parte hartzea bultzatuz.

Dena egiteko dago (Gaztetxea, jan-tzi ere, egin behar da). Ekintzei dago-kionez, hasteko, hor dugu Nafarroa Oinez, betiko ikastaroak, asteburutako kontzertuak, bideo emanaldiak eta bu-rurutzen zaizkigun/zaizkizuen ideia guztiak ere bai.

Funtzionamenduari dagokionez, betikoa, mantenimendua, tabernako txandak, lantaldeak osatzeko aukera, oso garrantzitsua den garbitasuna, e.a.

Udaletxearekin, berriz, oraindik hor daukagu zintzilika Ordiziako Gazte-diaren inguruan egin zen inkestari bu-ruzko elkarriketa. Puntu honetan al-kate jaunak Gipuzkoako egunkari ba-

tetan egindako deklarazio tamalga-rriekin gure moskeoa adierazi nahi du-gu, jarraian zehaztu nahi dugularik:

1.- Gezurra dirudi politikoez duten aurpegi latza, herritar kolektiboei par-tehartze eta errepresentatibitate handia eskatzerakoan, beraien alderdietako aparatoak berarentzat hori nahi luket-nean. Gaztetxera joaten diren %31-ak lokalaren "erabilera exkaxa" suposa-tzen badu, zer esan beharko ote genuke alkate jauna babesten duen %15-ari buruz (Udal-Batzordeetan parte har-tzen duen ordiziar kopuruarekin sartu gabe)? Bestalde, alkate jaunari esan, inkestak dioen %31 hori benetan par-tehartzea izango balitz kontentu baino kontentuago egongo ginatekeela; bai-na konsziente gara zifra horren irreal-tasunaz, partehartzea eskasagoa da, eta esateak ez digu inongo lotsik ematen, gure helburua Gaztetxea bultzatzea bait da eta ez politika merke bat egitea.

2.- Gaztetxea eta alderdi politiko bat nahasteak ez du zentzurik: sar zaitez zu zeu Ordiziako edozein lokal publiko batetara eta egin ezazu inkesta bat: hautaketa politikoari dagokionez, ber-tako jendearen eta gaztetxera joaten direnen artean desberdintasun handirik

ez dagoela konturatzeko aukera izango duzu.

3.- Azkenik, esan, ez dela oso tajuz-koa inkesta batetako datuak zuk egiten duzun moduan estrapolatzea. Suposa-tzen zen, Udalak eta Gazte Asanbla-dak, inkesta honen inguruan elkarrik-eta denboraldi bat iriki behar zutela Gaztetxearen erabilpenari buruz hi-tzegiteko; egia esan, zure deklarazio "intuitiboek" ez digute behintzat inon-go elkarriketarik sujeritzen, kontra-koa baizik. Halere, zure ezagupenean jartzen dugu zure edo zure korpora-zio-kideek egin nahi dituzuen "funda-mentuzko" iniziatiba edo sujerentzien zai gaudela oraindik. Gure aldetik ohartxo bat egin nahi dizugu: elkarrik-eta beti ekintza edo jokaera erreal ba-tzutatik hasita suertatzen da, inoiz ez intuizio edo balorapenetatik hasita.

Bukatzeko, Gazte Asanbladak par-tehartzeko gogoia duzuen gazte guztiei gauza bat esan nahi dizue: zuen esku dago Hau aurrera ateratzea, zuen esku dago ere "giroa ez zait gustatzen" edo "nik zer egiten dut hemen?" ez esatea. Etorri zaitezte!

ORDIZIAKO GAZTE ASANBLADA

**A ze flaxa
Seguran!**



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.**

**IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA**



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



IRYROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

RAIMON MUSIKAL

JAMO PROFESIONALA
BANATZAILE OFIZIALA
Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN


KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKO

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

Ipar-Hegoa sentsibilizazio kanpaina



--Urriaren 21-etik 26-ra Hirugarren munduko arazoei buruzko sentsibilizazio aldi bati ekin zion Ordiziako Udalak.

Hirugarren Munduak bizi duen egoeraz 1988-rako dagoeneko hasia zen kezkatzen Ordiziako Udala, Mujika abizeneko "kaputxino zuri" batek bultzaturik. 89.an, milioi bat pezetak ematea erabaki zen eta 90.etik aurrera, europar istituzioek gomendatzen duten arabera, aurrekontuaren %ko 0,7a herrialde pobreen laguntzarako erabiltzen da. Horrela bada, urte horretan lau milioiko laguntza eman zen eta aurtengo kanpainan diru-kopurua 4,5 milioiraino iritsi da.

Kanpaina hoietan sentsibilizazio kanpaina sartzen da, eta Hirugarren Munduaren garapenerako burutzen diren zenbait ekintzetarako laguntza ekonomikoa; adibidez, Oscar Romero Batzordeak 600.000 pezetako laguntza jaso zuen El Salvadorreko indio komunitate batean artisau kooperatiba proiektu bat bultzatzeko.

Aurtengo laguntzak eskuratzeko proposamenak azaroan aurkeztu behar dira. Udalak emandako laguntza ez da bakarria izan, Ordiziako Parrokian milioierdi pezetak bildu bait ziren, "Manos Unidas", herri pobreei laguntzeko erakundearen zatit.

Kanpainaren eratzaileak Ordiziako Udaleko ongizate saila eta Erakunde Ez Gubernamentalak dira (Ez "Goberna-

ezinak", portzierto). Azken honetan, Oscar Romero Batzordea, Askapena, Manos Unidas, eta abar biltzen dira. Mundu pobreen kontzientzia gehiago zabaltzeko eskoletarako dossier-antzeko bat prestatu dute eta herrian zehar panelak jartzekotan ziren.

Arazo honen isladapenak Hirugarren Munduko herri pobreetatik Europara datozen inmigranteak dira. Gipuzkoan adibidez, 8.000 emigrante edo kalkulatzeko dira, eta Goierriin bertan

"paisak" ditugu inmigratio horren lekuko. Goierriko alkateak bildu zituen kanpainak eta klausura egunean, "Munduko jantoki" delako horretan, Ordiziako plazan, marrokiarrek euren janari propio bat prestatzekotan ziren. On egingo al zien.

R.U.

Ataungo biztanle kopurua erdira

--Ataungo biztanle-kopurua ia erdira etorri da 20 urteetan, Zorionek informatzen duenez. Joan zen martxoan egin zen behin behingo biztanle-zentsuaren arabera, Ataunen 1.773 lagun bizi dira gaur.

Beraz, biztanlego-kopuruak beherakada garbi-garbia egin du azken urte hauetan. Mende sarreratik hasita gerratera arte, 3.000 inguru zituen. Gerra ondorenean zerbait hausten hasi zen; 50. hamarkadan ordea, gorakada handia jo zuen, kanpotik etorritako langileek bordatrainoko guziak bete zituztenean, 3.300 bizilagunetara iristeraino. Gaur, berriz, hara zer murrizketara etorria dagoen.

Adierazgarri bezala, Aitzarte bailarak 147 lagun zituen Errepublikara garaian, eta gaur berriz, 65 bakarrik. Ustatso zeharrean berriz, lehen 67 eta gaur 35. Tokitara joan zaizkigu garai bateko kontuak...

Lazkao menditarrek militarren maliobrak salatu

--Urriak 9an eta egun osoz, bertako bizilagunen kejak eragin zituzten maniobra militarrek suertatu ziren Lazkao mendin. Helikoptero handietatik jauzi egin eta armaz jositako eta aurpegiak moztortutako militarrek ibili ziren, segidan helikopteroak jasotzen zituztela, behin eta berriz.

Lazkao mendian ganaduen larre-gunea dugu eta bai eta pasealekua Beasain, Ordizia, Lazkao eta ingurukoentzat. Kolore ikusgarriak zeramatzen soldaduok eta ez kakiak, hortik jendearen harridura eta kejak, "Egin" egunkariak zekarrenez.

Aurrea oso txarra artzaientzat

--Ataun San Martingo Ixidro Sukia txikitatik joan ohi da ardiak hartuta Aralarra. Doniturrieta Azpiko borda ederra du, baina oraindik ura falta du, eta bainua, Patxi Zubizarretak "Egunkaria"n zioenez irailean. "Argia bazeukeat, motor txiki batekin lortzen diat, eta gainera Diputazioko plaka solarrak jarriko dituztela aginduta zeukeat".

Etorkizuna iluna eta malkartsua ikusten du Ixidrok: "Lehen bat pozak egoten huen artilea mozteko, baina kontu egin ezak ni hasi nintzenean, kiloa 110-120 pezetan zegoela, eta orain berriz 10 pezetan... Bai, aurrea txarra datorrela ikusten duk. Ardi larrua ere orduko 600 pezetatik gaurko 125etara jaitsi duk, parregarria... Eskerrak gaztak eta esneak zeozer ematen duten. Diputazioak ere urtean 2.000 pezeta ematen dizkik ardi buruko, bestela ez zegok".

Gazta aipatu zutelarik, Ixidrok hau aitortu zien Zubizarreta eta G.M. Arrugae-tari: "Inoiz izan diat Ordiziako gazta lehiaketara azaltzeko kapritxoa, baina oraindik ez nauk aurkeztu".



Aralar Parke Naturala izango 2-3 urte barru

--Bi urtetan ez bada, hirutan bilaka daitekeela Aralar Parke Natural esan zuen Aranzadi Elkarteko Iñaki Aizpuru biologo itsasondorak, Jaurilaritzak berriki azaldutako asmoa egiaztatuz. "Urtebete atzeratuta ere, ez dut uste ezer jokatzeko denik. Hobe da gauzak aurretik ondo egitea, atzetik konpontzen aritzea baino", esan zion Aizpuru Alazne Iturriotz ordiziarrari, "Egunkaria"rako elkarrizketan.

Eremu bat Parke Natural bilakatzeak urtetako lana eskatzen duela argitu zuen Aizpuru: aurretik inguru fisikoaren ikerketa egin behar da, bertako baliabide naturalen ordenazio plangintza, eta lortutako emaitzekin Ekintza Egitasmo bat martxan jarri.

"Enirio-Aralarren duela hamar urte egin nuen nik ikerketa hau, bertako Mankomunitatearen eskariz, eta Ekintza Egitasmoa martxan jarri genuen, Amezketak eta Bedaiotik hasi eta Atauna bitartean". Baina Aralar urrutirago ere zabaltzen da. Lan erritmoak diferenteak izango omen dira, "Gipuzkoan sei hektareatik bat da baso eta beste guztia harkaitz edo larre eta Nafarroan, aitzitik, bostetik lau da baso", dioenez.

Artzantza ehundaka urteetan izan da Aralarren eta "horri esker dago mendia dagoen moduan --gehitu zuen--. Parke Naturalaren helburua da, paisaia kultural hori modurik onenean mantentzea, mendia mantentzeko". "Artzaiei txabolak konpondu dizkiegu, eguzki panelen bidez argi indarra jarri, ura eraman txaboletaraino,... nabarmena zen gauza batzuk ez zeudela ondo eta saiatu gara horiek konpontzen".

Erosio arazoak eragin ditu artzantzak eta hauei beste erabilpen bat eman diete

zuhaitzak landatuz edo deskantsuan utziz. "Ganadua urte guztian egoten zen mendian eta deskantsua behar zuela ikusita, ganadua jaitsi eta igotzeko epeak jarri genituen. Baina ganaduzaleak ez zituzten epeak bete eta istiluak izan genituen".

Ongarria zabaltzeko abionetak erabiltzen hasi ziren. Ekologistek aurka egin zuten: "Ongarria zabaltzeko beste modurik ez da. Gutxieneko azpiegiturak behar izaten dira eta saiatu gara ahalik eta hobekien egiten, inguruarekiko ahal den errespetu handienarekin".

Zabortegei inkontrolatuak han-hemenka

--"Zabortegekin ez dugu buru ematen" esaten zioten Rufino Iraolari aurrekoan Zaldibiako Udaletxeko arduradunek. Lehen ere adierazi izan du "D.V."-ren orrien bidez eta berriro publikatzen du, "baina ea jendeak aintzakotzat hartzen duen" erantsiz.

"Beraz: ez dago herrian, inon ere, ezta norbere terrenoan ere, inolako zaborra eta hondakinik botatzerik. Horretarako dago Sasieta, amankomunitateko zabortegea, eta izendaturiko egunetan kalera ateratzen ez direnak hara eraman behar dira. Ondorioz: zaborrak direla eta legea hausten duenari kontu zorrotzak eskatuko zaizkio eta ezarriko zaion zigorra, Udalak dituen atribuzioen arabera, ahalik eta handiena izango da".

Itsasondotik oharra

--Itsasondotik dator notizia, baina Goierriko beste herri batetik etorri zitekeen. Denetan ere lege eta lege-hauste bereitsuak izango baitira.

Zenbait bizilagunek obrak egitean beharrezkoa den obra baimena eskatzen

ez dutela oharturik, zera jakin erazten da: gaur egungo legeak eta Udal-arautegiak agintzen duenaren arabera, obra baimena eskatu behar dela Udaletxean obrak egin aurretik eta baimen hori lortu arte ezin direla obrak hasi.

Beste batzuen artean, segidan adierazten diren obra hauek egiteko beharrezkoa da obra baimena: mota guztietako eraikuntza edo istalazioetako eraikitze obrak (barne obra berriak eta handitzeak; eraikuntzen barne antolamendua aldatzen duten obrak; lur higidurak hala nola, desmonteak, eskabazioak, e.a.; etxeen fatxada aldatzen duten obra guztiak eta etxe barruko obra txikiak; bide edo pistak eraikitzea; orube edo lur sailen itxiturak. Obra baimena lortu ahal izateko eskaera inprimakia Udaletxean jaso daiteke.

Osakidetza

--Permisurik gabe sua egitea, sasi eta sastrakei su ematea, nola-halako txabola eta baratza izatea muino eta halakoetan libre izaten zen garai batean Goierri guzti honetan. Iada ez direla horrela gauzak. Osakidetza agintzen dituen sanitatea arauak bete behar dira: konejuak eta ezin dira nola-hala eduki.

Bestalde, laborategietako beajanteak, etorri bezain pronto medikuarengana sartzen direla gaixoei aurea hartuz oraindik ere herri txikiotan. Gaixo gizarajook haserre: zai eta zai egon ondoren... Beajanteok 10 bat mediku-etxe bixitatu behar dituzte, medikuek ez dute kontsulta ordutegiz kanpo bisitaririk hartzen. "Zita Previa" delakoaren bidez hartuko balira gaixoak, herri haundietan bezala, ez lirateke horrelakoak gertatuko. Zergatik daude diskriminaturik herri txikiak? Aseguru Soziala ez dute ordaintzen berdin? Osakidetza, zer egiten du?



Zer iritzi diozu industria-krisiari buruz?

Joxe Domingo Albisu. Ordizialdean kristaldegiko nagusia, 47 urte errenteriar Lazkaoratua.

Zeñi ez dio afektatzen? Nolatan? Hazienda dala, Aseguru Sozialak... danak jan. Lan-asuntua pattal dabilhela. Nundik hasten dan? "Ondasun eta zerbitzu" sektorekok gera gu eta kristal-asuntoan kanpotik dator konpetentzi aundia, Burgostik eta. Laguntzak badira, baña jendea ere preparatua egon bear du hoiek jaso izateko. Danontzako dago Sagazdek ematen duna, baña 10 milloiko inbertsioitok goran sartu bear zera. Gu enpresa txikie gera eta txikie aundik jaten du, eta, edo biltzen zera aundiagoarekin edo kitto.

Guk ez degu desmantelamentu industrialarekin zerikusirik. Euki bear degu garbi zertan gabilten. Kontsumo aldetik aundie bazera, prezioak alakoak dituzu, aundiak nai dun bezela dabilki txikie, aiek agintzen dute. IVA asuntotan ez naiz sartzen, ez naiz ekonomista, baña zer panorama ikusiko degu? Ez dakigula nundik nora, kristala geroz eta merkeko, produzio aundiagoa egin bear da irabazi bat ateratzeko. Datorrena ez dakigu, zeñek daki? Txikiak elkartu egin bear giñake; kultura malla oso bajue daukegu, ez dakigu izketan, alkar joka ari gera. Kamioikadak erdi-prezioan ekarri ordez alkarrekin, norberak berea ekartzen du.

Pegak asko, txikie beti izorratuta, aundik berriz ere markak sortuko dituzte. Enkarguko lanetan ere, ez dago ola-ta-ala sartzerik. Langillea pagatu ezazu, aseguruak, irteerak, materiala. Asko igotzen da. Industrial txiki asko eta askok, alde batetik galtzen atera arren, bestetik atrako garbiak jotzen dituzte eta aurrera.

Tomas Agirre, beasaindarra, 54 urte. Industriari txikia.

Krisi industrial honen eragiletzat hiru puntu aipatuko nituzke.

Industriak oinarrian, ez dira gizarteari zerbitzeko sortuak, norberekiko negozio edo dirutzari begira ipiniak baidzik. Horregatik dago horrenbeste konpetentzia, langabezia, drogatu, marjinatu, e.a.

Konpetentzia edo konpetenteenak nahi izate horrek ere, hainbat injustizia sortzen ditu; orokorrean, industria haundiei laguntza publikoak ematen zaizkie, txikiei bizkarra emanez.

Industriak Niponen filosofian jartzeak, hau da, asko produzitzea eta derrigorrez saldu beharrak, arazo larriak sortzen ditu; beraiek, ia nahikoa direla munduko gizartea zerbitzeko alegia. Besteok berriz, zer egin? Bada, langabezian bizi!

Aipaturiko aurreko puntu horiek, azken batean eta oinarrian, Espainiak ezartzen digun industria filosofipean gaude-lako da. Beraz, Euskal Herria eta euskaldungoa bere buruaren jabe ez dugun bitartean, menpetasun horrek, langabezia ez dugu uxatuko Euskal Herritik, hain zuzen. Ezkortasuna ote den hau pentsatzea? Industria egoera honek ez ote dakargu munduko gerra berri bat?

Langile sindikatua, 40 urte, beasaindarra

Egunotan dago pil-pilean arazoa, al-tzairu espezialetako sektoreko enpresek



hartu duten joera dela, dela Asturiaseko greba orokorra, dela Estatuko eta Euskadiko ehun industrialaren egoera. Askok diotenez, ematen du gai honek ez diola afektatzen Goierri eta afektatzen badi-gu, zeharka, "Indar"eko espediente dela medio, baina ezer gutxiago.

Eta gezurra da hori, eman da eta gertatzen ari da industriaren desmantelamendu hori, era traumatikoan, gutxi-asko. Ikusi besterik ez dago azken hamarkadan galdu diren industria-enpleguak: 2.200-2.300 postu. Zifra alarmanteak, ze enplegu industrialaren %25a suposatzen baitute. Guzti hori herri osoak industrial-ki arruinatu dituzten ixe traumatikoen bidez lortu da (Gaztañaga eta Apellaniz Ordizian, Zegamako Papelera, Lazkaoko Fundiciones Echevarria, Peydesa Ormaiztegin), eta plantila murrizketekin (aurre-erretiroak eta baja inzentibatuak), askotan diru publikoak erabili direla enplegua eliminatzeko: CAF, 800 enplegu, Aristrain 272, Indar 81, Idiazabalgo Patrizio 168, Estanda:83 langile gutxiago, e.a. Eta hori handienak bakarrik esate-gatik.



— merka P21 dendak —



**CHASYR
SEGUROS**
ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina **ORDIZIA**



**TXALUPA
ERRETEGIA**

Arrain, marisko eta okelak parrilan
P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**



MAIKA

Jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
Tfnoa: 88 91 59 - **ORDIZIA**

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ


Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59



P - 21
Kafetegia

- Sandwitx eta gosari apartak

Goierrri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf: 88 85 18

20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa)



JATETXEA
885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Ilizondo **Ordizia**

GASTEIZ

- * **Karta Zerbitzua**
- * **Lan menuak**

RUBIORENA
JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 **B E A S A I N**




SEGUR TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1º Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

Juan Manuel Barandiaran: "Goierriko geroa marraztu nahi dugu, ez jasan"

"Goierri" Lanbide Eskolako zuzendari eta "buru bisible" bezala dugu ezagun Juan Manuel. "Goierriko Herrien Ekintza" Fundazio pribatuko --eta izaera publikoko-- Zuzendari Orokorra da orain. Goierriko Plan Estrategiko bat egitekotan dabil Fundazioa. Lan kapazitate ezak ez du izutzen, antza denez.



G.H.E. Fundazioa orain sei-zazpi urte sortu zen, Goierri L.E.-ren sendotasun eza nabarmena zela eta. Zenbait formula juridikoen ondotik (Juntaren atzean ez zen babesik, 2-3 lagun), Donato Unanue G. Eskolaren zuzendari ohiak Fundazioaren gorpuztean urrats handiak eman zituen. Eskola horren titularrak 4-5 Udal. Enpresaririk ez zen. Zuloa zegoen eta orain tapaturik dago. Azken lau urteotan, Goierriko Udal gehienak eta enpresa garrantzitsuenak daude bertan. Gorbida-turik gainontzekoak.

Orain lau-bost urte sartu zen "Goierri"ko Zuzendari legez "Barandi", arazo gogorrek zirela medio eta gestio esperientziarik bazuela. Apaiz ikasketak eginak ditu, Filosofian lizen-tziatua Erroman, magisteritzan zenbait urte egin eta gero Psikologian ere lizen-tziatua da.

GOIERRITARRA.- "Goierri"k, hobekuntzara jotzeko-edo beharko zuen agian, baina "moral-hesturak", keriak leporatzen zaizkizu.

J.M.BARANDIARAN.- Orain 4-5 urte sartu nintzen, konfliktu baten ondorioan. Egia esan, momentu hartan oso irudi txarra zuen Eskolak eta hori onartua da. Nik uste dut aldaketa bat suertatu dela. Zer nolakoa?: nagusiena, Eskola beraren egituratzea, barne-araudi bat egin zen. Enpresik ez zegoen, gaur egun bere gidaritza-pean 13 daude. 15 Udaletxe.

Agian, kanpotik norbaitek esango du "Barandi gizon gogorra da eta esku-gogorarekin jokatu du". Nik ez dut uste gauzak horrela direnik. Eskolaren aldaketa ez du Barandik eman, hartu diren erabakiak Eskola Kontseiluak hartu ditu. Pertsona bakoitzak ditu bere "inprontak", bere izakera. Askotan, harria botatzera-koan, norbaiti zuzendu behar izaten diogu. Kasu honetan niri, bai onerako, bai txarrerako. Batzorde Erabakikorrean dauden udal-ordezkariek apustu serioa egin dute, partida ekonomikoak eskatuz udalei eta enpresei. Gainera, irakasleak ezin ahaztu, irakaslegoaren borondatea-ren kontra ez da egin egin dena. Berauek

dira protagonistak. Egin al dute grebaren bat lau urteotan?

"Goierri Lan-Eskola" k komenioa si-natu Jaurlaritzarekin eta, izaera publi-koa/tratamendu publikoa, dirulaguntzak areagotu dira. Gaur egun 1.000 pztako kuota ordaintzen dute OHO-BUP- etik FP-ra geroz eta gehiago pasatzen diren ikasleak.

G.- Nola dakusazu lan-mundu goierri-tarra, dibertsifikaziorik ba ote, Lan-Eskolan enpresek absorbitua izateko prestatzen da jendea, edo...?

J.M.B.- Nire ikuspegitik kezagarria da bailadaren egoera. Zuk orri batean bederen aitortu duzun bezala, dibertsifikazio-rik ez da. Metalaren transformazio-in-dustria dugu %70a. Hortik aparte ezer gutxi dago. Lehen mailako sektorea den nekazaritza, antzinako nekazaritza be-zalatsu. Gaur egun arrakasta izan deza-keen nekazaritza-abelkuntzarik ez dugu: letxuak gure gurasoek aldatzen zituzten eran landatzen ditugu, konturatu gabe

beste sistema batzu badirela. Oraindik oso atzeratuta gaude eta erantzunik ez da.

70. inguruan "Siadeco" k eginiko Goierriko ikerketa hura oso ona zela deritzo "Barandi" k. "Gehiago esango dizut: estudio haren zenbait konklusio baliagarriak dira oraindik. Hura nork gauzatu, ze bitartekoekin, e.a., hori ez zen bere garaian erabaki eta orduan papelean edozer gauza jarri dezakezu, hitz politikak, baina ez da nahikoa: ardurak banatu eta baliabide ekonomikoak mahaigainean jarri behar dira gero. Orohar, esango nuke eskualde mailako hitzarmen bat ezinbestekoa dela. Udaletatik hasita, alderdi politiko eta erakunde, Goierriko zerbitzuan garen eta goierritar sentitzen garen guztion aldetik.

G.- Sar gaitezen Egitasmo Estrategiko honekin. Paper horien banaketa dator?

J.M.B.- E. Estrategiko Aurreikusleak ezin dezake garantizatu arduren banaketa haseran. Burutzerakoan ikusi beharko dugu nola gauzatu dezakegun, bakar batzuk edo denok. Baina Plan hau egitearen beharraren zergatia esplikatuta nahi nuke. Hitz labur esanda, Eskola inguruan sortu zen. Garbi dago industria monobalentea dugula. Zerbitzu alorra motel. Kezkak nola gaingitu? Bada hezkuntza-munduko alternatibak eskainiaz. Baina uste genuen ez zela nahikoa gaurko leihatila batetik begiratzea eta gaurko errealitatean oinarrituz irteera berriak sortzea. Pentsatu genuen, zer nolako Goierri nahi dugun marraztea zela inportantea; zer nolako nahi dugun diot, ez zer nolako jasango dugun. Gure asmoa ez da geroa jasan nahi izatea, egin nahi dugu geroa. Marraztu zer nolako 2.000.eko Goierri ikusi nahi genukeen eta horrelakoa nahi badugu goazen beharrezkoak aztertzea.

G.- Zer konpromixu dituzte hartuak enpresariak Eskolarekiko eta diruetxeak Fundazioarekiko?

J.M.B.- Hor, konpromezurik, nik dakidanik ez dago. CAF-ek garai batean bazuen barne-eskola bat eta Goierri Eskola sortzerakoan erabili omen zituen arrazoiak, bata ekonomikoa eta bestea, bertako ikasleak asumitzea zen, aidanez. Enpresa batek gure ikasle bat, hartzen du, beharrik baldin badu. Eskaintza-eskaera

markoan, normala; ez noa honen baloraziorik egitera. Nahiz hitzarmenik ez egon, lehen ikasleek ez zuten lanik aurkitzen eta orain bai, gehienak.

Diruetxeek, berriz, Kutxa batek diru-laguntza bat ematen zigun, baina hori moztu egin da, beraiek politika berri bat urratu nahi dutelako. Zuk zenion modura, kutxek hiriburu eta inguruetan gastatzen dituzte beren gizarte fondoak. Kutxa kasu nabarmena. Nahiz eta bildutako etekinak Gipuzkoa osoan sortuak izan. Arrazoi asko daude noski, beste bide batzuk urratzea eskatzeko. Gure eskaera egin dugu eta itxaropentsu gaude Fundazioan. LKA-ren erantzun jatorra dugu, bestalde.

"Ezinbestekoa da Goierri mailako hitzarmen bat"

Bailadari begira, Egitasmoaren garpenerako, bitarteko batzu izan beharko ditugu diruetxe, udaletxe, Diputazioetik e.a. Gazteluak aidean altxatzea izango da, bestela.

G.- Ikasketak ere, euskaraz ere eginagatik, gero irtenbideak (teknika, ordenagailuak, espezialduen ikastaroak) gazteleraz omen daude. Balizko Goierri hori zein hizkuntzetan eraiki behar da eta zeinetan eraikitzen ari da?

J.M.B.- Ezinbestekoa da guk Goierri euskaldun bat nahi izatea. Oso errex esaten da, baina horrek gauza asko esan nahi ditu niretzat... Eskolari begira, ukatuezinezkoa da azkenaldian euskararen aldeko apostuan gaudela. Garbi daukat ez dugula

behar hainbat jorratzen, lotsa ematen dit esatea, baina hala da. Hezkuntza Sailak markatutako irizpide batzuen arabera jokatzeko derrigorrezkoa dugu. Ahalegin bat egin liteke, baina diru-bitartekoak behar dira.

Egia da baitaere Plana, den-dena, erdaraz egiten ari garela. Ukaezinezkoa da gure betebeharra euskaraz egitea dela. Bietara egin beharko genuke, eta hau ez dut uste aitzaki bat denik: muga bat daukagu, Gipuzkoako Plan E.-a bukatzeari aurre hartu nahi genioke, bertan txertatu ahal izateko gurea. Euskaraz egitekotan, denbora gehiago behar da. Gure erreflexioa denboraren baitan egin dugu, ez bestetan. Euskaraz argitaratuko dugu halere. Euskarari eman behar diogun bultzada gaurdainokoa baino handiagoa izan behar du.

Aurreko batean "Euskaraz bizi" lema irakurtzen omen zuen Juan Manuelek, eta nahiz eta askotan zaila egiten zaigun, horretara jo beharko genuke. "Horra hor erronka. Borondate politiko batek izan behar du sustraia".

Fundazioaren entramatuak "ezer gu-txi" egin du orde euskara munduan. "Apustu hori egingo da, nahiz ondorio ekonomikoak izan. Eskolako zuloak tapatu dira eta laister izango da pausu berriak emateko garaia. Euskarazko ikasleentzat aparteko gelak izatea litzateke ideala. Baina askotan onena onarekin ez dator ados. Horiek goi-mailako erabakiak dira eta Administrazioaren esanetara gaude: Nondik dezakegu?".

Pentsatzen du Herri honetan beti ez garela arituko egitura nagusiak egiten eta noizbait iritsiko dela beste oinarritzko zerbitzu eta arazoentzako (baztertutakoak: kultura, euskara, denbora libre, asperdura, drogak, pasotismoa...) denbora.

Gainontzean, Bailada bezala jokatu behar dugula uste du, osotasunerako zerbitzuak sortuz, pasatako hauteskunde aurretik lau alderdi politikoek ziotenarekin bat etorritik.

Mikel Aramendi

Fundazioa

Guk dakigula, Lazkaoko Alkate J.a den Estensororen lehendakaritza-pean, Ordiziakoa eta Beasaingoa ere, gutxienez, tartean direla, biltzen du jenderik Batzorde horrek.

"Marketing-ean huts egiten dugu" esaten digu Fundazioaren Zuzendariak. Kale-mailan apenas da ezaguna Goierriko Herrien Ekintza, baina egon, hor dago. Hortik, J.M.B.-ek akatstzat jotzen duen zurrumurru hura: Fundazio-ko Zuzendari "a-dedo" aukeratu zutela. "Gauzak bereiztu egin behar dira: Juri-dikoki erakunde pribatua gara, nahiz elemendu publikoen ordezkariak egon, nahiz izaera publikodunak garen. G.H.E-k kontratatu ninduen Lanbide Eskolako Zuzendari izateko oposaketa bidez; Zuzendari Orokorra behar zen gero: ez dago lehiaketarik zertan egin beharrik, barruko norbait hautatu zitekeen eta horrela egin zen".

Zer dagoen Erakunde horren atzean? Errealitate nagusi "Goierri" Eskola, irakaskuntz ez-arautuko egitarau guztia, ikastaroak hainbat enpresetara zuzenduak, informazio eskaintza zabalak langabezian daudenentzat, "Ikaslan", Komite Komarkalaren (hezkuntza azterketak, enpleguaren bideraketa) "errealitate bikaina", zerbitzu kontable bat eta teknologikoa beste bat, martxan hastear daukate, bailarako teknologia premiei erantzuteko... "Momentu honetan ikusten da GHE garapen moduko agentzia bat dela", "Barandi"ren esanetan.

Helburuak (Lanbide Eskola eta Fundazioa) errealitate bilakatzen ari zaizkie. Udaletxe partaidetako ordezkariak fin-katurik daude. Bertan hartzen diren erabakiak ez daukate derrigor be-teak izan beharrik udal/enpresetan. Estatutu bat-zu daude, ekimen pribatuak erredaktatuak eta



horiek onartuz sar ahal daiteke. "Estatutuek markatzen dituzte joku-arauak, horietara tajutu behar gara denok".

Ondo montatua, beraz. "Orain, gauza guztiak omen dute balio bat eta balio hori gehitu edo murriztu daiteke. Uste dut, azkenaldian, Fundazioa tresna baliagarri bat izatera etorri dela, frogatu daiteke. Hemendik aurrera, denborak esango du eta neurri aparteko batean Eskualdeko Plan Estrategikoa burutzen denean pisatu beharko ditugu tresna honi buruzkoak".

Plan Estrategiko prospektibo baten beharra ikusi, geroa nolakoa izango den irudimen esfortzu bat egin eta, kontutan hartuta beste zenbait aberri eta gizartek zer nolako apostuak egin dituzten, gaur egungo errealitate eta irudikamen esfortzu horren nahasketa paperean jar-tzen saiatuko gara.

Bere ustez, "ezin liteke Plana burutu eta denei bereganatzeko esan. Ahale-

gintzen gara ahalik eta jende gehienak parte har dezan. Orain, gauza bat da asmoa eta beste bat ikerketa egite-ra-koan teknikak eskatzen duena". Ezinezkoa da denok bapatean partehartzea zuzenean ikerketa horretan.

"Prospektiker" Institutuko teknika-rien esanetara jarriak daude. Ondo ja-riak gainera, "eguna joan eguna etorri, partaidetza goraka baitdoa". Gutxi dela hiru egunetan 25-30 pertsona bilduta egon ziren Leitzan eta harrezkero 200 bat lagunek bete dute inkesta bat. Ko-mixioen fasea irekitzera doaz berehala. Giza eta erakunde guztiak kontutan hartzea zaila ikusten du, baina 9 ba-tzordeetan egotea askok eta askok po-sible izango bide dute.

"Nola gauzatu jarritako helburuak? Ez nizuke esango. Gabonetarako Egi-tasmoa tajuturik egongo da: zer nolako bailada, nork tajutu, nor konprometitu, zerekin? Orduan ikusiko da". Itsaro-pentsu agertzen zaigu "Barandi", "mo-tor txiki bat pizten doala" deritzo. Pa-perak ondo banatu beharko dituzte.

Fundazioaren helburu nagusia Goierriko garapen ekonomiko- soziala bultzatzea da. Ergo, "garapen sozialean gauza asko sar daitezke. Gu ez gara po-litikoak, baizik eta teknikoak eta uda-letxeek planteatu lezazketen maila ho-

rretako arazoak aztertu eta bideratu egin beharko di-ra, zerbitzu-izpiritu bate-ratzaile batekin". Funda-ziokideak prest daude, nahiz ezer gutxi iritsi zaien halakorik. Eta GOIERRITARRA?

Bariable asko eta asko egongo dira seguruenik Planaren marrazketan. Urrutira begira daude: Eskualdeko Erakunde ba-ten sorrera ere kontenpla-tuko da, besteak beste. Geroa da bihar.

Jon Arano





BASAKANA
TRESERIA

Giro on eta jatorra

Tif.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tif. 88 00 00

Kale Nagusia, 20


BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulego Tresneria
- Ikastolako Materialak
- «Olivet» idazteko makinak
- Fotokopiak

J.M. Barandiaran Enparantza. Tel: 881240
20240 ORDIZIA



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



MUJIKAJATETXEA

Lierria 20214 MUTILOA
Tfon: 801699

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
- BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK. E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...
Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

HARLORE BITXITEGIA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2
ORDIZIA

Tfna: 88 96 17

AUTO KONPONKETA — MARGOKETA

GAUR, C.B.

Karrozeria

San Prudencio - Mendizabal
Teléfono, 88 86 09

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

HEGOA

TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik

OGITARTEKOAK

BAZKARI eta

AFARIAK



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

T ▲ A

M ● PA A

Y ■ PEL O

- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA



Aloka

Edergintza eta Usaindegia

Domingo Unanue Plaza, 2
Tl. 88 24 10

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

**ARANTXA
MERZERIA**

Joxe Miel Barandiaran Enparantza, 3
Tfnoa: 88 76 15
ORDIZIA

**MIRENTXU
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 2.
BEASAIN

Tfna.88 14 57

**KOIOTE
TABERNA**

ETXEZARRETA, 2

ORDIZIA

**Kiska
PUB**

STA. MARIA KALEA

ORDIZIA

BIZITZA LABURREKO ARTISTA ABANGUARDISTA BATEN ITZAL LUZEA

Nikolas Lekuona

1913ko abenduaren 19an munduratu zen, Gipuzkoako Ordizian. Blas Lekuona eta M^a Nazabalen arteko ezkontzatik jaiotako zazpi seme-alabetatik lehena da. Beasainan egiten ditu bere ikasketak Kristau-Eskolen Anaiekin, eta donostian geroago, bertan Madrilgo Aparejadore-Eskolan sartzeko prestatuz. Matrikulatu zen Arte eta Ofizioen Eskolan ere.

1932-33an Madrilera joaten da eta hiri horretan iraungo du bere karrerako hiru kurtsoek irauten duten denboran.

Hara joan aurretik, ordea, bere lehen erakusketa egingo du, Ordizian bertan, "pintura industrial"ekin, herriko Sarriegi, Zurutuza eta Qulez artistekin batera, 1932ko udan. Irailean, "euskal tipo"en bi dibujo bidaltzen ditu San Telmo museoaren inagurazioa ospatzeko egiten den erakusketara.

Madriren Goya kalean bizitzen da, emakume kapelagile eta familiaren ahaide den baten etxean. Honela idazten dio hiriburutik bere amari (aita aurreko urtean hila bait zen) 1933ko ekainaren 3an: "...hilabeteren bat izango da Ramon Gomez de la Sernari (idazleari) hor Pedro Mari, Trini, Gregorio, etabarri atera nizekien argazkiak erakutsi nizkiola... eta izugarri gustatu zitzaizkion. Bat eskatu zidan berak, bere etxeko paretan ipintzeko; esan zidan, oso ondo orientatua nengoela arazo honetan, eta oso mundu zabala dagoela Espainian, berak ez duela eta beste inor ezagutzen nire estiloko argazkiak egiten dituenik. Gainera oso etorkizun handia zegoela kameragizon bezala, zinerako, eta erreportari grafiko bezala.

Asko gustatu zaizkie argazkiak Zubiaurre anaiei (pintore gormutuei) ere; joan deneko hiruzpalau hilabetetik hona ezagutzen ditut.

Ez dakit gogoratuko zareten (agian Mari Loli bai) "Arte" aldizkariak: Sarriegi utzi zidan bat hor Gabonetan egon nintzenean; bada, aldizkari horretako lan-kideek nire argazkiak argitaratuko dituztela agindu didate, bigarren zenbakia ateratzen baldin bada" (...)

(...) Madriren, Jorge Oteiza, Jose Sarriegi, Joakin Gurrutxaga euskal gazteekin egiten ditu harremanak, eta horiekin beren adiskide Etxeberria ahizpen, modista gazte batzuen, etxera joaten dira. Biltzen dira baita Diel izeneko aleman baten etxean ere: liburutegi on baten jabe da hau eta beste artista askorekin harremanak dituena.

Pombo-ko tertuliara ere joaten da, Gomez de la Serna zen eta bertako zuzendari. Pedro Mozos eta M. Gamo-ren adiskide egiten da, bigarren honen estudioan bilduz, pintura lantzeko. Lan egiten dute orobat Arte Ederren Zirkuluan, Biblioteka Nazionalera jo ohi dute aldizkari atzerriarrak kontsultatzera eta UFaren zineaz interesatzen dira.

Bere Madrilgo gela, txikia eta irregularra izaki, bere obran erreproduzitzen dituen maskarekin dekoratua zegoen, eta baita paperezko higigarri, argazki, mani-ki bat?...etabarrekin ere. Gela honetan berak egindako gauza "funtzionalak" erabiltzen zituen: argi elektrikoarekiko atril bat, "ondo egon" deitzen ziona, etzanda irakurtzeko, eta "pertxaplantxa" bat bere galtzentzat.

Beste adiskidetasun batzuk ere lantzen ditu, hala nola Concha Espinarekin, izan ere hau, dirudienez, Goya kale berean bizi



Iragan uda hasieran Nikolas Lekuonaren familiak bere obraren jabetza eman zion Ordiziako Udalerriari. Nikolasen heriotzatik 54 urte igaro eta gero ere abangoardiakoak izaten jarraitzen dute bere arte-lanak.

bait zen, eta Andueza eskultorearekin, zeinaren argazki-erretratu on bat egin bait zuen.

Jorge Oteizarekin Medikuntzako Fakultateko hilotzen depositura sartzen da, eta beren garaiko Madrilgo bizimodu buhamea egiten dute.

1933an bigarren saria ematen diote Gipuzkoako lehiaketan, orduan bi urtez behin egiten zen "Artista Berrien Erakusketa"n. Luis Etxeberria ezizenaren pean aurkeztu zituen bere obrak.



Nikolasen familia-argazkia Ordizian, etxean. Miradore berezi horiek mantentzen ditu etxeak oraindik.

1934eko udan Ordizian lan egiten du Jorge Oteiza eta Sarriegirekin. Etortzen zaizkio baita, bisitatzeraz, Martin Gamo eta Mozos ere. Eta bilerak egingo dituzte Joseba Rezolarekin "Euskal Berpizkundez" hitz egiteko.

Madrildik Balenziagari idazten dio, esanez, beharbada bere argazkiak eta fotomuntaiak "Diablo Mundo" astekari errepublikarrean argitaratuko dizkiotela.

1935ean (bere lagun Oteiza eta Balenziaga Amerikara joanak dira jadanik), berriro hainbat obra jartzen ditu ikustera Gipuzkoako Artista Berrien Erakusketan: pinturak, dibujoak eta argazkiak. Ez zaio saririk ematen. Bere lagun Jose Sarriegik eskandalo bizia sortzen du Lekuonaren obrak eskita zeuden lekuetatik jaitsiz, protesta bezala. Urte horretako udazkenean, "Noreste" poesia eta arteko aldizkariak bere bi dibujo eta bi argazki argitaratzen ditu.


Urte honetan baita ere Gasteizko "5 (bost)" aldizkariarentzako lanak egiten hasten da, baina ez da kaleratuko 4 zenbakikoa, hain xuxen bere lankidetzaz iragartzen zenekoa, besterik. Gil Vicenteren "La Sibila Casandra" obraren antzezpenarako eszenografia proiektatzen du Odriozolarekin, baina hau ere ez zen antzeztera iritsi, gerra zibilaren etorrierarengatik.

1936an Ordizian bizi da eta Donostian lan egiten du Florentzio Mokoroa arkitektoarekin. Edifizio funtzionalisten proiektu interesgarriak egiten ditu.

Francoren tropek Ordizia hartu ondoren (dirudienez tropa abertzaleekin joan nahi izan zuen baina bere amak berarekin nahi zuen), falangista egin beharrean aurkitzen da eta Aizpurua, Olasagasti, Legarde etab.ek sortutako "La quincena de GU" elkartearen lan egiten du, eta lantzean behin, Prentsa eta Propagandako Departamentuan ere bai.

Frontera andari bezala inkorporatua izaki, Fruizen hiltzen da, 1937ko ekainaren 11n. Oker ulertutako bonbardeo batek bukatu zuen bere biziarekin. Bere azken fotomuntaietako batzuk bere heriotzaren iragarpenak direla ematen du, bere burua odol-xirriekin aurkeztuz.

Surrealista on bat zenez, Lekuona artista hiritar bat izan zen, bere janzkera modernoa bere pentsakerarekin identifikatzeko ardura biziarekin. Horrexegatik deitzen zuen atentzioa bere herrian. Bere pasealdi hiritar luzeen kontu leial askia



"Inoren kalea" (Urdaneta kalea) eta "Titulirik gabe": Nikolasen buru odoleztatua: Buñuelen zine surrealista dirudi. Frentean hil beharreko urte berean eginiko argazki premonitorioa.

ematen dute bere argazkiek, eta baita "txanpon- jale", barraka, etab. bezalako tramankulu mekanikoetarako zuen zale-tasunaz ere.

Bere obra, XIX mendearen hondarrean eta XXaren lehen urteetan hasitako berrikuntza artistiko-kulturalarekin aurreprestaturiko ingurune batean sortzen da, zeren eta ingurune horretan parte erabakiorra izan bait zuten euskal artistek (gogora dezagun Euskal Artisten Elkarte), soziologikoki Bizkaia eta Gipuzkoako industrializazioarekin lotuek. Eta berrikuntza horri behin eta berri bestea bultzada bat emango zaio, euskal artisten partaidetza eragilearekin, baina testuinguru madrildar batean oraingoan 1925eko Artista Iberiarren Erakusketa-rekin.

Lekuonaren obra, jadanik Euskal Herrian hasia izanda ere, ez dator bat ingurune motiboak mintzaira moderno batekin finkatu eta definitzen dituen "euskal arte" baten "tradizio moderno"arekin. Ez bide dirudi euskal artisten obran inspiratzen denik, ezta abangoardiarekin bere aurretik konektatu zutenekin ere, hala nola Gezala, Uzelai, Aranoa, Olasagasti edo Cabanas Erauskinekin, eta bai Artista



Fotomuntaiak. Lekuona ezaguna da nazioarte mailan. Euskadiko Argazkigintzaren mostra antologikoan ez ezik, Frankfurten laister erakutsiko da bere obra.

Iberiarren Elkarteko belaunaldi gaztearekin, eta honen aldizkari "Arte"k emandako orientazioarekin.

Baina hala ere, Oteiza, Gurrutxaga, Sarriegi, Balenziaga, Odriozola, etab. bezalako bere belaunaldiko euskal artista eta intelektualekin etengabeko kontaktuan gogortzen da: horiekin komunikatzen da eta horiekin trukatzeko bere esperientziak, eta horiekin prestatzen Euskal Herrian burutzea destinatutako proiektuak ere, 1934eko Erakusketa bezala, zeinarekin Oteizak gauza zaharkitu eta galkorren aurkako "gerran dauden euskal artista nazional"en elkarte bat sortu nahi bait zuen. Esan nahi bait da, euskaldunekin zituen harremanetan mugimendu abangoardisten halako aire berezi hori hartzen duela, euskal eremua berritzera zuzendutako postura bat alegia gure kasu honetan.

Eta mugimendu generazionala dei genezakeen honen barnean, susma dezakegu Lekuonak paper erabakior batekin beteko zuela, Oteizarekin gertatu den bezala, ez balitz gerran hil izan.

Adelina Moya.Itzulpena: Gotzon Nazabal
"Nikolas Lekuona. 1913-1937" liburutik.

GOIERRIKO ZURAK, S.L.

Inportazioko zur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

20210 LAZKAO

ZABALA KAFEAK

Nafarroako Etorbidea, 2.
Tolosa - Tfnoa: 67 20 30
Enparantza Nagusia, 2.
Ordizia - Tfnoa: 88 29 88




IRIZAR ANIAK

GALLINA BLANCA PURINaren banatzaileak

Almacén Central-Biltegia
Hiribarren
Teléfono: 88 75 00
20210 LAZKAO

Denda-Comercio
Fueros, 1
Teléfono: 88 12 09
20240 ORDIZIA



ELEKTRIZITATEA

K/ Nagusia, 10
Telefonoa: 88 23 00

20240 - ORDIZIA


Kirolak Sport

Ski modalitateetan
espezializatutako denda

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta, 3



20200 BEASAIN



Ardo, patar eta txanpanak
Salmenta eta banaketak

Edariak

Nueva, 3 - Tlf.: 88 12 26 - ORDIZIA

BIÑASPRE

USANDEGIA OPARIAK

Kale Nagusia, 8
Tfnoa. 88 13 37

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



Iturgintza -

Mendi-Ondo Etxea
Tel. 88 40 57
20247 ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7 - Tel. 88 80 29
20200 BEASAIN

GOIERRI GRUAK S.A.

GRUA ETA MONTAJE ZERBITZUA
GARRAIO BEREZIAK

56 Posta Kutxa - 20240 ORDIZIA
Tfnoa: 88 15 52

ALKAIAGA Taberna

- ✓ Pintxo askotarikoak
- ✓ Txokolatea txurroekin
- ✓ Ogitarkeoak

Urdaneta, 18 behea

ORDIZIA



“Purtzil halakoa, zenbat”. **Sarriegi, Mikel. Donostia:** **Elkar, Branka Saila. 1991.**

Estatistiken mania hedatu aurrekoa du-gu euskaldunok kontatzeko grina, eta kontulari atsegin famarik jaso ez badugu ere, ez digu sekula hutsegin kontu-hartzaile zorrotz izatearenak.

Mikel Sarriegik ere, modu berrian erantzuteko asmoarekin inondik inora, musikagintzan adina indardu nahi du literaturan oinarritzko galdera: zenbat gara? zenbat denboran?

Hogei urte zituenean idatzi eta Gipuzkoako Diputazioaren Gazteendako Lehiaketa irabazi zuen “Purtzil halakoa, zenbat?”, honetan Mikel Sarriegi beasaindarrak (zenbatzeko bapateko irrikiz horretaz gain kontatzeko abilitadea ere erakusten du).

Liburuaren kontrazalak adierazten duenez honela ekin zion lan honi: “Eman dezagun ilazkitsu batean, fantasiako lapikoa hartu, ekintzek piztutako sutan jarri, bertan suspentsez betetako zenbakiak hitz ozpintsuenekin nahastu eta guztia umore-piperrez gozatzen dugula, bor-bor egin arte”.

“Eta lan neketsu horren ondorioz kontatzen diguna zera da, Ilazkiak gobernatutako urpean asmatzen duen munduan, Aztiburu izateko bertako biztanle zenbaitek jasan behar dituzten frogak --gaur egungo oposizioen antzekoak konparazio batera-- . Hauek, kuanto, ez dute batere antzik gaurregungokoeekin, ez bada, bederen, epe jakin batean garaitu behar hori.

Eta aldea ondo nabarmentzeko kasik (erabiligabearen poderioz) altxor bihurtu den mitologiara jotzen du pertsonaiak tajutzeko-eta. Hala ere, Sarriegi ez bait da alferrik mendi-injeniadore, mitologiako aipamen eta ametsekin nahasian aurkez-

ten ditu materialen kalitate fisikoenak, kasurako neurri batean, zientzia beraren historia mitologiako amets baten historia dela erakutsiz.

Azkenean Mieloxinek senperrenak pasa ondoren jakingo du ez dela amaierara iritsi, hasierara baina “orain, gertatutakoaren argibidea eta bere lurraren zirikatzaila”. «Hazaldi berrikoa horretan ere, euskara jori eta aberatsez dihardu, gaztetxoentzako idazten denak hizkuntz errezean egon behar duelakoari muzin eginez. Ahozko euskararen marka guztiak erabiltzen ditu, beraz, eta narbarrenki despektiboena.

Ez da Sarriegi GOIERRITARRA haietan agertu zirenekin konformatu eta aspaldi entzuteke geneuzkanaz gain bere asmaziozko beste andana ikaragarria ezarri du pertsonaia lotsagaldu hauen ahoetan.

Ez du horregatik euskalkiko tonua gordetzeko batere konplexurik izan eta gaztetatik euskara erdi-normalizatuaz egazutu duen idazle izango dela iger daiten Sarriegiren lanean, nahiz eta akaso lexikoa zaindu behar eskerga horren zama idazketaren alderdiren bat edo besteri arintasuna galerazi dion.

Mikelentzat hasiera bezain segida ona opatzea besterik ez dagokigu eta GOIERRITARRAko irakurlearentzat, seme-alabei zein liburu erosi asma ezinik badabil, aholku koxkor bat: “Purtzil halakoa, zenbat?”

Marife

Goierriko **zenbait aldizkari**

Askoren artean eginak izatea dute amankomunean. Lehenagotik baziren aldizkako “Nondik” (beteranoena euskara hutsean), “Kantillape” (28 zenbaki), “Zerain”, “Lazkao”, “Beasain”, “Ordizia. Sta. Ana” (“jaietan” urtekariak, aurreko errejimenetik datozenak, azkenaurreko biak) eta GOIERRITARRAri, hurrengook etorri zaizkigu denbora gutxian: “Galtzaundi” Tolosaldeko hilabete-karia (Ikaztegieta, Amez-

keta eta Abaltzisketara ere iristen dena: 5.000 ale); “UdalBatza Zuekin” (Lazkao-ko udal aldizkaria, HB-ren Boletín Informatiboaren --34. alean doa azken hau-- ondok); “Zaldibia. Santa Fe 91”, (euskarak eta erdaraz, “Festivo”en formula erabiliz); “Bidetxur”, Segurako HBren agerkaria (bertako informazio eta kultura zabaltzeko jaiotzen dena) eta “Emakumezkoentzako Babesetxea” deritzona.


“Euskara Beasainen” izenburuarekin argitaratu da halaber bertako azterketa soziolinguistikoen laburpena. Sakona, jatorra eta erakargarria. Legorretan ere aldizkari bat ateratzekotan dira beti...

Zer esan? Boom bat dela hain epe txirikako. Bazterrak mugitu direla azkenaldian eta GOIERRITARRAK zerikusirik izango zuela guzti honekin. Lastima da: beste gehienetakoak balukete lekuri gurean, bultzatuagoa balitz denon aldetik.

Halere, aniztasun bat erakusten du honek. Ez ordea, gauzak behar bezain ongi egiten direnik: Zaldibiako eta Emakumezkoentzako aldizkariak akats nabarmenak atera dituzte beren lehenean, bai euskarazko testu eta bai grafia aldetik.

Ondo daudenak hobetu eta okerxeagoak zuzendu daitezela espero dugu. Zorion eta ongietorria luzatu beharko diegu.

J. Arandia



Zakurraren paraderoa!!!

1.

"Emandako guztia
bukatu duk rintxo!,
ez emango balitek
egunero txintxo;
haragi gutxi eta
hezur gehiegitxo;
hotel dotoreegian
ez haiz bizi, Pintxo".

2.

Bertsotarako badut
motibo galanta
ikusirik aureko
zakurraren planta,
emea izan arren
nola jarri alta?
Disekatzeko ere
ez du asko falta.

3.

Goseak eta hotzak
daukate bi kundan,
eta bere nausia
zeinek daki nun dan?
Pintxok ez du jarriko
eperrik burrundan
eta gorde lezake
eskupeta fundan!

4.

Alde batera niri
egiten dit grazi:
katetik askatuta
balantzaka hasi,
dirudienez oinez
ez zuen ikasi
edo ikasi zuna
ahaztu zaio kasi.

5.

Tripa-barrena dauka
bizkarraren kontra
edo bizkarrezurra
perlesiak jota;
puzka aritu arren
ezin ezer bota,
hilabeteen ezer
jan gabe dago-ta.

6.

Ijara estutu ta
begiak larritu,
gure zakur gaixoak
komeriak ditu,
metro erdi bat zuzen
ezin du korritu;
bizitze hutsarekin
du nahiko meritu.

7.

Irlandatik propio
ekarritakua,
ondo pentsatuz gero
ez da bertakua,
gero izatekotan
holako tratua
hobe zuen zerratu
ez balitz tratua.

8.

Etxean behar omen
zituen eperrak,
eta atera ditu
porru-hazi ederrak;
baina ez du errurik
Irlandes Seterrak;
nausiak erakutsi
dizkio senperak.

9.

Zabaldut gure
zakurraren sonak;
nik ez daukat errurik
ez badira onak;
baizik anaiak, haren
karguan dagonak,
bihotzaren izpirik
ez duen gizonak.

10.

"Requiescat in pacem"
nire errezua
eta emango diot
azken balazua;
sufritzen eman badu
bizitza osua,
gutxinez izan beza
heriotz gizona!

11.

"Requiem" a ezezik
berdin "miserere"
kantatu lekioke
honi, alafede!
Hobeto bizi izan da
hamaika abere;
ez da asko lermatuko
lurperatuta ere.

Zaldibitar batek

ARGIaren HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.:TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak

20160 Lasarte-Oria

Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63

Faxa: (943) 36 10 48

Hiru diska urtebeterako

Betiko galdera da, ugarite batetara alde egin beharko bazenu, ze hiru gauza eramango zenituzke? Horixe galdetu nion neure buruari: azken urte honetako ugaritean ze hiru diska entzun dituk gustora?

Lehendabizi, iazko udazkenean, *"Txe-rokee"* izeneko diska entzun nuen. Diska hau, mundu anglosajoiar askotan erabiltzen den era baten arabera egin zen: Talde mordoxka batek abeslari edo talde baten bertsioak egiten ditu, bide batez kausa zuzen baten alde dirua jasotzeko.

Gurean abeslaria Mikel Laboa da eta kausa zuzena Seaska, Iparraldeko Ikastolak alegia. Taldeei dagokienez baten batzu nahiko ezagunak badira ere, Delirium Tremens, M-ak, Tapia eta Leturia edo Negu Gorriak, beste batzu berriak dira jende askorentzat: Su ta Gar, Bukaera, Kiowak, Pottoka, Karkaxa eta Bap.

Ezagunak ala ezezagunak, kontua da jende gazte osaturiko taldeak direla eta hau da agian lan honen baliorik onena; izan ere bidea ematen digu doinu zaharrak erritmo berrien arabera entzuteko.


Bertsioen maila ona da, txalogarria. Dena den, guztien artean badira bi oso gustokoak ditudanak. Batetik Su Ta Gar-ek *"Haika mutil"* itxuraldatu egiten du bertsio gihartsu bat eginez; bestetik Negu Gorriak daude, hauek *"Gaberako aterbea"* abestiaren bertsio newyorkiar bat egin dute (Public Enemy-ren saxoak eta guzti erabiltzen dituzte).

Noizko horrelako diska bat Benito Lertxundiren abestiek? Gehiegiegi!!!

Bigarren diska Ruper Ordorikaren *"Ez da posible"* izeneko da. Aitortu beharra daukat oso maitea dudala Ruper, bai musika aldetik, eta bai letretan isladatzen duen *"munduagatik"*, nolabait esateko.

Iruditzen zait bere lanak bi jatorri dauzkala. Ruperrek oso ondo ezagutzen du gure tradizioa, euskaldunok atzetik daukagun guztia alegia, baladak, trikitixa, Aresti... Bestetik oso arduratuta dago modernitatea deitzen den horretaz. Nahiko da edozein elkarriketa irakurri edo entzutea konturatzeke luze hitz egin dezakeela gaur egungo literaturaz edo musikaz. Musikari dagokionez, esate baterako, nabaria da 80etako hainbat abeslari oso garrantzitsu batzuk berearengan izan duten eragina (Robert Wyatt, John Martyn, Nic Lowe, Elvis Costello... *"new wave"* deitu zuten mogimendukoak).

Tradizioa eta modernitatea dira bere bi iturriak eta bere abestietan biak biltzen saiatzen da. Muturrak hainbeste gustatzen zaizkigun herri honetan (zu Akoa ala Bkoa zara,



zuri A ala B gustatzen zaizu) eskertzeokoa dira horrelako jokabideak.

Bere laugarren diska dugu *"Ez da posible"* hau. Garai bateko abesti luzeak-eta, aldamenen utzi eta pop musikaren ohizko moldeen arabera egindako diska da. Hamaika abesti, zein baino zein politagoa eta nolabaiteko samintasuna hitzetan. Horrela dio abesti batek: *"...mundu guztia arrotza da ene herrian"*. Zeini ez zaio hori bururatu behin baino gehiagotan?!

Bukatzeko, gomendio gisa. Emanaldi polita dauka prestatuta zuzenean eskeintzeko. Ziur uda honetan behin baino gehiagotan ikusi ahal izan duzula. Aukera ederra ordu t'erdia ederra pasatzeko!

Hirugarren diska Negu Gorriak-en *"Gure Jarrera"* da. Dударik gabe talde hau izan zen iaz izan genuen sorpresarik haundiena. Dena den zailena ez omen da hori izaten, baizik eta mailari eustea. Makina bat talde edo idazle ezagutzen ditugu lehendabiziko lana izugarria egin dutenak, eta gero porrot haundiak jasan behar izan dituztenak.

Aldaketarako bidea aukeratu dute diska honetarako. Bi kide berri hartu dituzte, Mikel Anestesia eta Mikel Bap, horrela ohizko talde baten itxura hartu dutela.

Abestien artean ere, aldakortasun haundia dago, aurrekoan baino eragin ezberdin gehiago nabari dira. Azken honetan, behar bada, izan du zerikusirik Frantziako Mano Negra taldeak. Talde honen arabera, Rock and Roll-a gertakari oso zabala da, eta gauza asko daude izen horren azpian. Taldeek musika egitean, ordea, estilo oso zehatza hartzen dute eta muga horietatik ez dira ia ateratzen. Hau da, heavy talde batek heavy musika baino ez du aintzat hartzen eta bost axola berari rap-a edo funky-a.

Halere jende askori hiru musika mota hauek gustatzen zaizkio. Orduan, zenbait talde hasi dira beren diska eta emanaldietan atsegin zaizkien musika guztiak nahasten. Hauen artean, gure inguruan behinik behin, aparteko arrakasta edo sona lortu dute Mano Negra-koek eta badirudi Negu Gorriak-ekoek ere bide hau jorratu nahi dutela.

Diskari buruz zer esan? Sarreraren ondorengo abestia *"Lehenbiziko bala"* deritza, beste abestien izenen artean ez dugu bigarren edo hirugarren balarik aurkitzen; halere hamazazpi balaz osatutako lan baten aurrean gaudela esan genezake, zein baino zein indartsuagoa, banan bana gure gorputza eta gogoa astinduz.

Joxean Amundarain

publizitatea

H
E
R
R
I
G
I
N
T
Z
A
N

LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA

190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**

 **CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

ARTZAIAREN GAZTA
ORDIZIA GAZTANDEGI
KOOP.

DATA:

PISUA:

IDIAZABAL
Jatorri Izenaren Garantiarekin

%50 KOIPE GATIA



*Arakur eta Urian ibiltzen diren ardien
esne gordina az egindako gazta.
Urario zaharrei aitatz eta aurrezpenak
eskatzeko dituen kondizioak betetzeko
egina eta ondua.*

ORDIZIA
GAZTANDEGI
K O O P.

Jose Miguel Barandiaran Enparantza

Telefona (943) 88 94 20

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)